

# Elektrokardiografia klinikoa

Lopez Viña, Rake!  
Marketin Saila/Elhuyar Fundazioa

**Karlos Iburguren Olalde eta Felix Zubia Olaskoaga medikuek idatzi duten *Elektrokardiografia klinikoa* liburua argitaratu du Elhuyar Fundazioak. Obra joan den azaroan aurkeztu zuten Donostiako Miramar Jauregian, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak antolatutako *Mugimenduaren Osasuna* jardunaldiaren barruan.**

*ELEKTROKARDIOGRAFIA KLINIKOA* KONTSULTA-OBRRAREN EGILEEK elektrokardiograma irakurtzeko modua jasotzen dute, eta elektrokardiogramaren inguruan sakontzeko beharrezkoak diren bestelako gaiak lantzen dituzte. Osasun-arloko ikasleek, irakasleek nahiz medikuek erabiltzeko moduko liburua da. Lan honek 2003an jaso zuen Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen Agote saria, osasun-arloko ikasliburuen argitalpenak bultzatzeko saria, hain zuzen ere. Langai nagusiak hauek dira, besteak beste: bihotz-zelularen elektrofisiologia, elektrokardiograma egitea, elektrokardiograma normala eta elektrokardiogramaren

interpretazioa, barrunbeen hazkundera, bentrakulu bameko blokeoak, kardiopatia iskemikoa, erritmoa sortzeko arazoak...

Karlos Iburguren Donostia Ospitaleko Larrialdiak saileko mediku adjuntua da gaur egun, eta Felix Zubia, berriz, ospitale bereko Zainketa Intentsiboan Unitatekoa. Baina egileak ez dira bakarrik egon erronka honetan, eta honako profesional hauen laguntza izan dute liburua idazteko: Cristina Agirre, Mendaroko Ospitaleko medikua; Jose Jesus Artaetxebarria, Donostia Ospitaleko erizaina; Karlos Reviejo, Gipuzkoako Poliklinikako medikua; eta Rikardo Arrue, Izaskun Azkarate, Lucia

Elosegi, Haritz Iraeta, Marta Iriarte, Angel Mendia eta Arantza Mugialdai, Donostia Ospitaleko medikuak.

Liburua dagoeneko salgai dago liburudenda nagusietan nahiz Elhuyar Fundazioan bertan, 24,50 €-tan.

Lehenago ere argitaratu izan du Elhuyar Fundazioak Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak saritutako lan bat. Duela bi urte, Edurne Ugarte medikuak idatzi zuen *Patologia Orokorra* liburua argitaratu zuen. Obra hartan, patologiararen atal orokorra, arnas aparatua eta zirkulazio-aparatua landu zituen egileak, mila orrialdeko liburu mardulean. 

